

Leonel Moralesek paragabeko piano emanaldia eskainiko du Bilboko Elkarte Filarmonikoan 2025eko Piano Week-en

Bilbo, 2025eko martxoaren 10a – Erronka politiko handiko garaia bizitzen ari gara munduan, non gerrak berriro astindu duen gure kontinentea. Horregatik, musika inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egun, mugak gainditzen dituen hizkuntza unibertsala eta Europan kultur batasuna bultzatzeko elementua den aldetik. Hala, Eurobasquek eta Bilboko Koral Elkarteak Europaren aldeko Kontzertua antolatu dute, 2025eko Piano Week ekimeneko hitzordu nabarmenetakoa, martxoaren 14an, ostiralean, 19:30ean Bilboko Elkarte Filarmonikoan.

Kontzertuko protagonista Leonel Morales izango da, nazioarteko ospea duen pianista, Yangtze River Pianoko artista eskusiboa eta Grotrian-Steinweg marka prestigiotsuaren ordezkaria Espainian. Munduko agertokirik famatuenetan osatutako ibilbidearekin, Moralesek Europako piano-errepertorioaren esentzian zeharreko musika-bidaia egiten duen programa eskainiko du.

Errezitala Frédéric Chopinen re minorreko 4. *Balada*-rekin (Op. 52) hasiko da, erromantizismoaren lirikotasuna eta konplexutasuna biltzen dituen obrarekin. Ondoren, Ludwig van Beethovenen 23. eta 21. sonatak joko ditu: fa minorreko "*Appassionata*" eta do maiorreko "*Aurora*", biak ere Europako historiako unerik garrantzitsuenetan nabarmendu izan den borroka-eta askatasun-espirtuaren erakusle. Emanaldia Igor Stravinskyren *Tres escenas de Petroushka* lanaren adierazkortasun biziak amaituko da, tradizioaren eta berrikuntzaren uztarketa islatzen duen obra horrekin, gure kontinenteko kultur aberastasuna gogora dezagun.

Une honetan, aliantza estrategikoen berregokitzapena, ekialdeko mugetako gatazkak eta Europar Batasunak mundu-mailako orekari eusteko bete beharreko eginkizunaren birzehaztapena nagusi diren testuinguruan, Europaren aldeko Kontzertu honek artea elkar ulertzeko eta elkarbizitzarako tresna dela ospatuko du. Ekitaldiak, bere balio artistikoa alde batera utzi gabe, belaunaldien arteko topagunea izan nahi du. Hori dela eta, errezitala amaitutakoan, bertaratutako gazteenei agertokira hurbiltzeko eta pianistarekin une batzuk egoteko aukera emango zaie, besteak beste autografoak sina diezazkien, eta opariak eta sorpresak ere izango dira, helburua musika klasikoarekiko interesa piztea eta gau-emanaldia esperientzia ahaztezina bihurtzea izanik.

Pianoa omenduko den aste honetan, askotariko obraz osatutako programazio aberasgarriarekin, Bilboko Koral Elkarteak ere bere ateak ireki, eta musika bere adierazpen gorenean bizitzera, talentu berriak ezagutzera eta pianoaz eskaintzen dituen forma guztietan gozatzera gonbidatuko du publikoa. Arteak inspiratzeko eta batzeko duen boterea berresten duen jaialdia.

Aparteko hirukotea – Martxoak 15, 19:30: Uxue Filibik, Daniel Bertomeuk eta Eugenia Sánchezek, nazioartean jotzen duten hiru pianista gazteek, beren bertuosismoa, sentsibiltatea eta interpretazio-nortasuna erakusteko errezitala eskainiko dute.

Pianoa familian – Martxoak 16, 12:00: ekitaldi maitagarri honetan, Bilboko Koral Elkarteko ikasleak beren familiekin igoko dira agertokira. Gurasoak, anai-arrebak eta aitona-amonak oholtzan batuta, musika-ospakizun honek pianoa belaunaldiak gainditzen dituen lotura dela erakutsiko du.

Sonaxiki – Martxoak 18, 18:00: "sonata" eta "txiki" hitzen arteko jokoak ematen dio izena errezital honi, non Bilboko Koral Elkarteko interprete gazteenek gogoz eta ilusioz erakutsiko duten nola trebatu diren pianoa jotzen.

Sarrera doakoa da kontzertu guztietarako, aretoa bete arte, baina gonbidapenak alde aurretik jaso behar dira Bilboko Koral Elkarteko harrera-lekuan (Felipe Serrate kalea, 2 – A-O: 11:00 – 20:00).

Leonel Morales protagoniza una velada única en la Sociedad Filarmónica de Bilbao dentro de la Piano Week 2025

Bilbao, 10 marzo 2025 – Vivimos un momento de importantes desafíos políticos en el mundo, y en el que la guerra ha vuelto a asolar nuestro continente. Por eso, hoy la música es más necesaria que nunca, como lenguaje común que atraviesa las fronteras, y como elemento de unidad cultural en Europa. Bajo esta premisa, Eurobasque y la Sociedad Coral de Bilbao presentan el Concierto por Europa, una de las citas más destacadas de la Piano Week 2025, que tendrá lugar el viernes 14 de marzo a las 19:30 en la Sociedad Filarmónica de Bilbao.

El concierto estará protagonizado por Leonel Morales, pianista de renombre internacional, artista exclusivo de Yangtze River Piano y representante en España de la prestigiosa marca Grotrian-Steinweg. Con una trayectoria consolidada en los escenarios más prestigiosos del mundo, Morales ofrecerá un programa que traza un viaje musical a través de la esencia del repertorio pianístico europeo.

El recital comenzará con la *Balada n.º 4* en fa menor, Op. 52 de Frédéric Chopin, obra que encapsula el lirismo y la complejidad del romanticismo. Seguirán las sonatas n.º 23 en fa menor "*Appassionata*" y n.º 21 en Do Mayor "*Aurora*" de Ludwig van Beethoven, exponentes del espíritu de lucha y libertad que han acompañado los momentos más trascendentales de la historia europea. La velada culminará con la intensidad expresiva de *Tres escenas de Petroushka* de Igor Stravinsky, una obra que refleja la fusión de tradición e innovación, recordándonos la riqueza cultural del continente.

Hoy, en un contexto marcado por el reajuste de alianzas estratégicas, conflictos en las fronteras orientales y la redefinición del papel de la Unión Europea en el equilibrio mundial, este Concierto por Europa se presenta como una celebración del arte como vehículo para el entendimiento y la convivencia. Además de su valor artístico, el evento quiere ser un punto de encuentro intergeneracional. Por ello, al finalizar el recital, se brindará a los asistentes más jóvenes la oportunidad de acercarse al escenario y compartir unos momentos con el pianista en los que habrá firma de autógrafos, obsequios y sorpresas. Un gesto que busca despertar su interés por la música clásica y convertir la velada en una experiencia inolvidable.

En esta semana en la que se rinde homenaje al piano con una programación variada y enriquecedora, la Sociedad Coral de Bilbao también abre sus puertas e invita al público a vivir la música en su máxima expresión, a descubrir nuevos talentos y a disfrutar del piano en todas sus dimensiones. Un festival que reafirma el poder del arte para inspirar y unir.

Trío de ases – 15 de marzo, 19:30: Uxue Filibi, Daniel Bertomeu y Eugenia Sánchez Durán, tres jóvenes pianistas que ya triunfan en certámenes internacionales, ofrecerán un recital en el que demostrarán su virtuosismo, sensibilidad y carácter interpretativo.

Pianoa familiar – 16 de marzo, 12:00: Un evento entrañable en el que alumnado de la Sociedad Coral de Bilbao comparte escenario con sus familias. Padres, madres, hermanos y abuelos se unen a esta celebración musical que demuestra que el piano es un vínculo que trasciende generaciones.

Sonatxiki – 18 de marzo, 18:00: Un juego de palabras entre "sonata" y "txiki" da nombre a este recital en el que los intérpretes más jóvenes de la Sociedad Coral de Bilbao muestran su evolución al piano con entusiasmo e ilusión.

El acceso es gratuito para todos los conciertos, hasta completar el aforo, previa recogida de entradas en la recepción de la Sociedad Coral de Bilbao (c/ Felipe Serrate, 2 – L-V: 11:00 – 20:00).